

GOSETEAK SAHARAN

Saharako errefuxiatu kanpamenduetan elikadura ez da bermatutako eskubidea

Saharari begira jarri da Mundubat taldea, eta oraingoan elikadurari erreparatu dio, edo elikadura ezari akaso. “Elikadura egokirako giza eskubidea Saharako errefuxiatuen kanpalekuetan” txostena aurkeztu zuten Europako parlamentari talde baten aurrean.

Giza eskubideen begiradatik landu dute gaia, eta malnutrizioa nagusi dela ondorioztatu dute. Tindufeko errefuxiatu sahararrentzako kanpalekuetan elikadurarako eskubidea modu larrian mehatxatuta dagoela izan da ikasgai nagusia.

Txostenak datuak xehatzen ditu, eta Europako diputatuen aurrean adierazpen argi bat egin zuen Mundubat erakundeak: Mendebaldeko Saharako «baliabide naturalen ustiapena,

JENDARTEA / Iraitz MATEO GOGORZA

Mundubat taldeak “Elikadura egokirako giza eskubidea Saharako errefuxiatuen kanpalekuetan” txostena aurkeztu du. Bertako herritarren egoera aztertzen du, elikadura eskubide unibertsal bat dela oinarri hartuta. Zerbait elikagai eskuratzen dituzte saharar kanpamenduetako kideek, baina nolakoak dira?

nak, okupazioko eta mendekotasun neokolonialeko beste testuinguru batzuetan gertatzen den bezala, ez du inolaz ere Saharako herriaren bizi-maila hobetzen». Aldarri batekin lotu zituen datu gordinak: «Bada garaia Europak Saharako errefuxiatuen osasunaren eta ongizatearen inguruko konpromisoa hartu dezan». Eta lehentasunei dagokienez, lau

jarri zituen mahai gainean: finantzaketa-iturrien dibertsifikazioa, eskualdeko lankidetzak, autosufizientziaren sustapena eta tokian tokiko gaitasunen garapena.

Elikaduraren inguruan ertz askotatik hitz egin daiteke, baina oinarrian dagoena da sarritan ahazten dena, elikadura oinarritzko giza eskubide bat dela. Eta horregatik, Mundubatek

Tindufeko herritarrek eskuratu dituzten elikagaiak prestatzen, artxiboko irudi batean. EUROPA PRESS

ahalegina egin du, Saharako elikadura aztertzekeo garaian, gaia giza eskubideen ikuspegitik jorratzeko.

BILAKAERA ETA EGUNGO EGOERA

Saharako errefuxiatuen nutrizioaren egoeraren bilakaera bilatu du txostenak. Hasteko, azaldu dute errefuxiatuen nutrizioaren egoera ACNURek eta EMPk (Elikagaien Mundu Programa) kontrolatzen dutela aldian-aldian. Azken 15 urteotako egoerari begiratuta, gora-behera handiak egon diren arren, argitu dute 2016. urtetik nutrizioaren adierazle nagusiek txarrera egin dutela «modu kezkagarrian».

Argitaratu berri den txostenean, desnutrizioa pairatzen duten gizarteko bi talde nagusi aztertzen dira. Batetik, bost urte baino gutxiago dituzten haurrak, eta bestetik, 15-49 urte arteko emakumeak.

Haurren elikaduraren bilakaerari erreparatu aurretik, hiru desnutrizio mota pairatzen dituztela argitzen du txostenak. Desnutrizio akutua, “wasting” bezala ere izendatua: gorputz batek duen altuerarako pisu eskasa duela adierazten du, muturreko argaltasun bezala agertzen da, eta gose handiko egoerekin lotuta egon ohi da.

Desnutrizio akutuari dagokionez, eta bost urte azpiko haurren kasuan, bilakaerari erreparatzen badiogu, 2008. urtean goseteak gora egin zuela ikusi daiteke, eta ikertzaileen arabera lotuta egon daiteke garai horretan elikagaien prezioen gorakadaren ondorioz munduan egon zen krisi ekonomikoarekin. Orduz geroztik gosetearen indizeak behera egin badu ere, 2022an berriro ere gora egin zuen. Munduko Osasun Erakundearen baremoei begiratu-



ta, «egoera serio» baten aurrean geundeko.

Haurrengan eragina duen bigarren desnutrizio mota kronikoa da, “stunting” izen ingelese hartu duena. Kasu honetan, etengabeko pobrezia egoerakin lotuta egon ohi da, eta desnutrizio egoerak epe labur batez iraun egiten du; pisuari ez ezik altuerari ere eragiten dio. 1997an, bost urte baino gutxiagoko haurren erdiek desnutrizio kronikoa pairatzen zuten; pixkanaka indizeak behera egin bazuen ere hurrengo urteetan, 2022. urteko zifrak 2010ekoekin parekoak dira, eta haurren %30 inguruk pairatzen dute egun desnutrizio kronikoa.

Txostenak azaltzen duen hirugarren gosete mota anemia-rena da. Anemia dutenen kasuan, globulu gorrien kopurua edo hemoglobina-kontzentrazioa normala baino txikiagoa izaten da. «Odolak organismo-ko ehunetara oxigenoa garraiatzeko duen gaitasuna murrizten da, eta horrek sintomak eragin ditzake, hala nola akidura, ahultasuna, zorabioak eta arnastea zailtzea», definitzen du txostenak. Anemiaren bilakaerari begiratzuz gero, gorabehera adierazgarriak suma daitezke azken urteetan, baina 2010az geroztik gorantz egin du kopuruak; egun haurren %55ek pairatzen du anemia. Adituek arrazoi zehatzak xehatzea zaila dela onartzen duten arren, azaldu dute elikaduran gertatutako aldaketekin, makro zein mikroelikagarrien ekarpenetako gorabeherekin eta anemiari aurre egiteko programen etenarekin lotuta daudela.

15 eta 49 urte arteko emakumeen nutrizioaren bilakaera ere landu du Mundubat ekimenak. Adin tarte horretan haurdun daudenak edota bular emaileak direnak, eta haurdun

ez daudenak eta bular emaile ez direnak bereizi ditu.

Haurdun ez dauden emakumeen artean, gehien nabarmentzen den osasun-arazoa anemia da. Azken 25 urteetan gorabehera handiak izan dira, txostenean jasotako datuen arabera: «Anemia globalaren prebalentzia %40ko atalasearen gainetik dago; eta zenbait urtetan %60aren gainetik egon da. Benetan kezkarria da 2012tik 2022ra arte anemia globalaren bilakaera goranzkoa izatea». Hala ere, nabarmendu behar da «anemia moderatu edo arina» dela ia kasu guztietan.

Haurdun dauden emakumeei dagokionez, 2016an anemia globalaren prebalentzia %60koa

Datu gordinak azaldu ostean, aldarri egin dute: bada garaia Europak Saharako errefuxiatuen osasunaren eta ongizatearen inguruko konpromisoa hartu dezan

Anemia globalaren prebalentzia %40ko atalasearen gainetik dago; eta zenbait urtetan %60ren gainetik egon da. Benetan kezkarria da 2012az geroztik gorantz egin izana

Gasteizen egindako mobilizazio batean Sahara askatzeko aldarria izan zen nagusi. Artxiboko irudia. Jaizki FONTANEDA | FOKU



izan zen, eta orduz geroztik ez dago haurdun dauden anemiari buruzko informaziorik. Haurdun dagoenak anemia pairatzeak zuzenean eragiten die etorkizuneko seme-alabei.

Emakume bular-emaileen anemiari dagokionez, 2010eko, 2012ko eta 2022ko azterlanetan baino ez daude datuak. 2012tik 2022ra arte, gora egin zuten kasuek, eta anemia globala %60tik gorakoa izan zen.

Nutrizioaren egoera txar horren atzean, Mundubat taldearen ustez, oinarritzko saskia dago; izan ere, gutxienez Saharako errefuxiatuen elikaduraren %69 dago horren mende.

ESKURAGARRI DAUDEN ELIKAGAIAK

«Basamortuan bizi direla eta haien bizibideak oso-oso murrizak direla kontuan hartuta, Saharako errefuxiatuek laguntza humanitarioa behar dute ezinbestean», azaldu dute. Errefuxiatu estatusa daukatenez, laguntza hori Errefuxiatuentzako Nazio Batuen Goi Komisarioaren agindupean dago, eta zehaztu dute Elikagaien Mundu Programaren bidez (EMP) ematen dela laguntza hori. Elikadu-

ra balantza hori 133.672 lagunei banatzen zaie, EMPren datuen arabera.

Urteen joan-etorrian EMPk banatutako oinarritzko saskia aldatu egin da, eta zoritxarrez, kopurua zein aniztasuna murrizteko joera izan da nagusi. Gaur egun «saski lehorra» da banatzen dena, ez duelako produktu freskorik ematen zaio izen hori, eta honako osagaiak ditu laguneko eta hileko: 12 kg zereal, 2 kg lekale, legamia, olio litro bat eta 750 gramo azukre. Zehaztu dute orain dela urte batzuk saskia «osoagoa» zela, hamabi edo hamahiru produktu desberdin zituelako eta produktu fresko batzuk ere bazeuzkalako.

Hala ere, Esfera Proiektuak laguneko eta eguneko ezarritako 2.100 kcal-ko gutxienean estandarra erreferentziatzen hartuta, azken urteetako oinarritzko saskiaren hileko banaketan erdiak ez dira kopuru horretara iritsi, eta 2022ko zenbakiak ere horren azpitik geratu dira. Saskia osagarritzen duten banaketa batzuk ere badaude, batez ere produktu freskoenak, baina oso-oso mugatua omen da kopuru hori.



«Kanpalekuetara iristen den elikadura-laguntzaren bidez elikagaiak eskuratzeko aukera mugatua denez, ezin da elikadura egokirako eskubidea bermatu», ondorioztatu du Mundubatek. Era berean azpimarratu du «ahalegin handia» egiten ari direla kanpalekuetan bertan elikagaiak ekoizteko.

Hamaika eragozpen dituzte, ordea, sahararrek elikagaiak eskuratzeko beren ekoizpen propioa egiteko: tenperaturak oso altuak dira, haizete kiskalgarriak, ura eskuratzeko zailtasunak, lurzoru hareatsuak, lur zein ur gaziak... Eta hala ere, ortuariak ekoiztea lortu dute. «Ekoizten dena gutxi da kanpalekuetako elikadura-premien aldean. Izan ere, elikadura-laguntzaren osagarria da, ez ordezkagarria», deitoratu du gobernuz kanpoko erakundeak.

Egoera hau izanik Mundubat Saharako errefuxiatuek elikagaiak eskuratzeko dituzten aukerei begira jarri da. Gogoratu dute, premiei begiratzuz gero, eurek ekoiztutako elikadura zati txiki bat baino ez dutela estaltzen, eta beste hornikuntza moduen osagarri direla.

Saharako errefuxiatuentzat, erosketa ez da elikagaiak lortze-

Ezkerreko irudian, Tindufeko herritarrek, zain. Eta eskuineko irudian, Fronte Polisarioaren urteurren ospakizuna. EUROPAPRESS eta Lualí Lebser| FOKU

ko modu ohikoena. EMPk 2018an egindako ikerketaren arabera, elikagaien %16 baino ez dira merkatuan erosten, eta familien %52k euren diru-sarreen %65 baino gehiago gastatzen dute elikagaietan. Gogoratzen dute errefuxiatuak direla eta, kanpalekuen testuingurua kontuan hartuta, elikadura-laguntza elikagaiak lortzeko modu nagusia izan beharko litzatekeela uste dutela. Eta ondorioz, «bermatu» beharrekoa. Azpimarratu dute 2007az geroztik ez dela bermatu Esfera Proiektuak laguneko eta eguneko gomendatutako 2.100 kcal-ko gutxienekoa.

Elikagaien banaketa orokorra ez dela guztiengana iristen salatu du txostenak. Eta beste elementu batean ere jarri du arreta: herrialde emaile

guztiek Saharako kanpalekuetako elikadura-laguntzarako emandako Garapenerako Laguntza Ofiziala txikiagoa izan da 2021etik aurrera. Eta urte horietan elikagaien prezioak izandako gorakada kontuan hartuta, elikadura-laguntza «de facto murriztu» dela salatu dute.

ELIKAGAI EGOKIAK

Jasotako elikagai guztiak beharrezkoak direla nabarmentzen du Mundubat ekimenak, baina osasuntsu egoteko egokiak eta beharrezkoak zein elikagai diren aztertzen hasita, hainbat behar zein gomendio zerrendatzen ditu.

Nutrizioaren ikuspegitik, azaldu dute oso garrantzitsua dela elikadurak kalorietan neurtutako behar besteko elikadura energia eskaintzea otordu bakoitzean. Eta horrez gain, beharrezkoa dela makroelikagarrien arteko oreka egotea (karbohidratoak, proteinak eta koipeak) eta mikroelikagarrien ekarpena nahikoa izatea (bitaminak eta mineralak), horiek guztiak funtsezkoak baitira gorputzak zenbait funtzio bete ditzan.

Saharako errefuxiatuek eskuratzen dituzten elikagaiak

«oso urriak dira nutrizioari begira», jasotzen du ikerketak. Eta zehazten du gabezia handiak dauzkatela makroelikagarrirei eta batez ere bitaminei zein mineralei dagokienez.

Datu esanguratsu bat ere plazaratu dute: dieta egokia daukaten biztanleen ehuneko txikiena izan da 2022. urtekoa, baxuena 2008az geroztik. Gainera, oso kezkarria iruditzen zaie 2016.urtetik dietaren aniztasunak etengabe txarrera egin izana.

Giza eskubideen ikuspegitik, garrantzitsua da elikagaiak errefuxiatuen kulturaren araberakoak izatea: «Oro har, unean uneko egoeretan izan ezik, Saharako kanpalekuetan banatzen den elikadura-laguntzak kulturaren arabeko egokitasun hori betetzen du», baieztatu dute. Baina hala ere, euren tradizio gastronomikoa, Saharako herritarrentzat oso garrantzitsua da haragia eta esnea (batez ere gamelua-rena, ardiarena eta ahuntzarena) edukitzea, eta produktu horiek ez dira elikagaien banaketan kontuan hartzen.

Bestalde, tea ere oso garrantzitsua da beren kulturaren, eta ez da saskian sartzen, «kulturari begira hain garrantzitsua de-

Kanpalekuetara iristen den elikadura-laguntzaren bidez elikagaiak eskuratzeko aukera mugatua denez, ezin da elikadura egokirako eskubidea bermatu

Dieta egokia duten biztanleen ehuneko txikiena 2022. urtekoa izan da. Oso kezkarritzat jo dute 2016. urtetik dietaren aniztasunak etengabe txarrera egin izana

nez, baliteke biztanleek oinarrizko beste gastu edo premia batzuetan aurrezteak erosi ahal izateko», kontatzen du.

Elikadura egoki bat izateko, uraren hornikuntza ere garrantzitsua da, eta Mundubat ekimenak jakitera eman duenez, uraren hornikuntza ere txarra da, «kopuruari zein kalitateari» begiratuta.

GIZA ESKUBIDEAK

Giza eskubideen nazioarteko zuzenbidearen begietara, elikadurarako eskubidearen lau osagaiak betetzea beharrezkoa da: erabilgarritasuna, eskuragarritasuna, egokitasuna eta egonkortasuna. Eta era berean, lau osagai horiek betetzeko orduan, giza eskubideen

printzipioak errespetatu behar dira: partaidetza, jabetasuna, gardentasuna kontuak emateko prozesuan, ez-bereizkeria, duintasuna eta zuzenbide-estatua. Alabaina, Saharako errefuxiatuak oso egoera latz eta larrian bizi direnez, oso zaila da giza eskubideen printzipio horiek ezartzen diren baloratu ahal izatea.

SEADek babes egoera horretan antolatzeke zehaztu duen estrategiaren zutabeetako bat partaidetza komunitarioarena da, eta Mundubat taldearen iritziz, «elikadura laguntzaren banaketari dagokionez, partaidetza oso antolatuta dago sare trinkoaren bitartez».

Kanpalekuek elikagaien gehiengoa kanpotik datozen

zakuen bidez iristen zaie bertakoei. Hori kontuan hartuta, elikadura-laguntzaren finantzaketa ere aztertu du Mundubat ekimenak. Lehen lerrobua: «Saharako errefuxiatuentzako elikadura-laguntzarako emandako finantzaketa modu nabarian murriztu zen 2013. urteaz geroztik, eta ez da urte hori baino lehenagoko mailetara berriro itzuli». Elikagaien prezioen gorakada hartzen du ekimenak jo puntutzat, eta nabarmen du laguntza horren bidez beharko liratekeen baino elikagai gutxiago mobilizatu direla.

Gutxi gorabeherako kalkulu bat egin ostean, azaldu dute 2022an pertsona bakoitzak

kilo erdi elikagai baino gutxiago jaso zituela egunero, eta seguruenik, eguneko 350 gramora ez zirela iritsiko; «Produktu freskoei erreparatzen badiegu, ia-ia 40 gramo ere ez lirateke izango laguneko», zehazten dute. Etengabe bizitzen ari diren eskasiak, osasunean eraginak dituela salatzen dute.

Saharako kanpalekuek laguntza-emaile nagusia Aljeria dela azaldu dute, eta garrantziari begira, hurrengoak direla: Espainia, Europako Batasuna eta Estatu Batuak. Lankidetzako Euskal Agentziak emandako laguntza nabarmendu dute, baina aldarrikatu dute oraindik ez dela aski.



HAMAIKANPER
LEHIAKETA



Simon Macías-ek aurkeztutako saioa

KANPER MUNDUA GUSTATZEN ZAIZU?

EZ GALDU HAMAIKANPER SAIOAN PARTE HARTZEKO AUKERA!

EMAN IZENA ETA AURKEZTU ZURE FURGONETA

Eskaneatu QRa eta bat egin lehiaketarekin
Hamaika telebista zure bila dabil!
www.hamaika.eus/saioak/hamaikanper



hamaika

    